



BARREN

TOKIKOM



Arg.: Inma Mugerza

Perretxikoen usainean



ESTOPAERI

PILATES ZENTRUA eta BERREZIKETA POSTURALA
San Roke kalea 30, 7 behea



ASTE BURUETAKO JARDUERA BEREZIAK

- Azaroak 7: Masaje thailandiarren tailerra, 9:00etatik 14:00etara
- Azaroak 14: Aero-yoga tailerra 10:00etatik 12:30era (Arya Yogarekin) - **Data aldatuta** -
- Urtarrilean, ikastaro bereziak pilates irakasten duten monitoreentzat: lesioen tratamendua, elementu osagarrien erabilera
Deitu eta eskatu informazioa!

lizena emateko: 635 199 151 Natalia

Jeku
eder

horts klinika

Elena Herrero Lobo Dra.
Col. 20.000.671



- Diagnostiko digitala
- Estetika (zuriketak)
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- PADI

Aita Agirre Enparantza, 5 behea • 20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

Lehorgailua
AEG T61270AC



399€

Hozkailua
BEKO CN232121 NO FROST,
A+, 185X60, ZURIA



369€

Bizarra mozteko makina
PHILIPS HQ 6946



39€



**Kalitate onena,
preziorik onenean.**

**Zure elektrotresnen
garantia 5 urtera
luzatzeko aukera.**

Dendako prezioak. Agortu arte eskuragarri.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



ENEKO ITURBE



“Ekonomikoki bizi al gaitzke blog bati esker?”

Kaixo, Ana! Oraingo honetan Bartzelonatik idazten dizut. Hemen, badirudi uda ez dela bukatu, jakak armairuan ditut gordeta oraindik. Zure blogaren araber, ordea, Ana, esango nuke hor hotz pixka bat gehiago egiten duela, ezta?

Zure blogaz hasi naizela, horretaz hitz egin nahi nizuke gaurkoan. Iruditzen zait blogak azken urteetako fenomenoak direla. Izugarrizko garrantzia hartu dute moda munduan eta, profesionalki ere, erreferentzia bilakatu dira. Moda etxe garrantzitsuenekin kolaboratzen dute, eta haiek publizitate gisa baliatzen dituzte, ondoren beraien produktuen salmentak igotzeko. Munduko moda desfile garrantzitsuetan ikus ditza-

kegu, baita alfonbra gorrietan, jai garrantzitsuetan edo mundu mailako magazine famatuetan. Blogariak gaur egungo *influencer*ak dira.

Zenbait blog ezagutzen ditudan arren, aitortzen dizut ez naizela blogen jarraitzaile sutua eta horregatik zenbait galdera datozkit burura. Blogger izatea lanpostua al da? Eta ekonomikoki, bizi al gaitzke blog bati esker?

Nik urte asko behar izan ditut moda ezagutzak eskuratzeko. Esango nuke teknika eta ezagutza horietan datzala amateur eta profesionalen arteko aldea. Bestalde, nondik hasi beharko luke blogger izan nahi duen pertsona batek? Ana, zuk zeuk nola bideratzen duzu zure bloga? Eta zein da zure helburua?



ANA ALBERDI




“Blogak marka handien tresna dira publizitatea egiteko kasu askotan, ez nirean”

Kaixo, Eneko! Bai, badirudi Bartzelonan egiten ez duen hotza ber bi egiten duela hemen, Herbeheretan. Jaka ez ezik, bufandak eta jertse lodiak ere atera ditugu armairutik, blegean ikusi ahal izan duzun legez. Bide batez, gustuko dut blogaren gaia atera izana, askotan, jendeak ez baituelako ulertzen zein den blogari baten funtzioa, eginbeharra.

Nire bloga tamainaz txikia izan arren, egia da gaur egun urteak daramatzaten blogak garrantzi handia hartzen ari direla moda sektorean. Aipatu duzun bezala, marka handien tresna dira publizitatea egiteko garaian, izan ere, blogariak jendearengana hurbiltzeko eta zure produktuak ezagutzera emateko bide erraza dira. Azken finean, jendeari behar bat duela sentiarazten dion erreminta da publizitatea, kasu honetan, blogariak dira erreminta hori, eta bai, lanpostu bat da kasu askotan. Ez nirean, noski.

Arropa horien gaineko publizitatea egiteagatik, markek ordaindu egiten diete blogariei, azkenean (eta hau esperientzia proprotik idazten dizut) blog batez arduratzeak lan asko dakarrelako. Argazkiak ateratzeak, horiek editatzeak, testua idazteak, posta prestatzeak eta ondoren sare sozialetan jantzi horiek zabaltzeak lana eskatzen du, eta lan hori ez da musu-truk egiten.

Blog bat zabaldu nahi duen pertsona batek, batez ere, ilusioa izan behar du, eta proiektu berri hori aurrera eramateko gogoia eta konpromisoa. Nire kasuan, unibertsitate proiektu baten ondorioz hasi nuen bloga, baina gaur egun proiektu personal izatera pasatu da. Sarrera ekonomiko txiki batzuk ematen dizkidan arren, nire helburua gaur egun ez da blogetik bizitzea, baizik eta, gustuko dudan zerbaitekin gozatzea, eta nire irakurleak gozaraztea.



Sutegixa

arren, agintarien planetatik kanpo geratu omen da gaztetxea, kapitalaren kulturatik kanpo.

Lagun batek bertan esan zuen bezala, Euskal Herrian sortu dugun gauza ederrenetako bat da gaztetxeen sarea. Gazteek auzolanean sortua eta kulturalki hazten eta hezten lagundu diguna belaunaldi bati baino gehiagori. Gogoratzen naiz gure kasuan zenbat gozatu eta ikasi genuen Pedro Muguruzan genuen gaztetxeen.

“Lagun batek bertan esan zuen bezala, Euskal Herrian sortu dugun gauza ederrenetako bat da gaztetxeen sarea”

Pentsatu nuen baita ere gaztetxeen kontua azken 30 urteetan bizi izan dugun erdi utopia erdi amets bat zela eta agian hemendik aurrera gazteek bestelako bide batzuk hartuko dituztela.

Duela aste pare bat ordea sorpresa ederra hartu nuen. Gaur egun Elgoibarko gaztetxeak erabilera gutxi zuelakoan nengoen, baina hara non ikusi dudana literatura eta irakurketa talde bat sortu dutela, astero pelikula botata eta zineforum bat antolatu dutela, kontzertuak programatu dituztela eta den-dena txukunduz martxan jarri direla, gaztetxearen izen berria jarriz gainera, Sutegixa. Sekulako ilusioa egin dit gazteak gogor datozela ikusteak.

Bertan ibiltzen diren gazteentzat soilik ez, gizarte osoarentzat aberasgarria delako gazte ipurterreak herrian izatea, kultura aberastu eta giroa alaitzen dutelako. Azken finean, kultura deserosoa, dinamikoa eta benetako parte-hartzailea delako barrua betetzen diguna, kulturalki jaten ematen diguna.

Politikoki zuzena, garbia eta eroso. Ehunka lagun Kontxan elkartu eta denak batera aerobik saio erraldoi bat egitea. Donostia 2016k horrelako ekintza kulturalak nahi dituela dirudi. Parte-hartzailea, ez kaltegarria eta bereziki egunkarietako azaletako argazkietarako luzitua.

Garbitasun guzti honen erdian zegoen Kortxoenea gaztetxea, astearte honetan makinek eraitsi duten arte. Bost urteko funtzionamendu oparoa eta hainbat kultur eragileren parte-hartzea izan



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
EUSKAL KULTURAREN LEZUNA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► FILMAK EUSKARAZ, ZERGATIK EZ?

Igandean alabarekin Herriko Antzokira joan nintzen *The house of magic* filma ikustera. Pozik joan nintzen, filma euskaraz izango zela iragarrita zegoen eta. Akatsen bat izango zen eta gaztelaniaz bota zuten.

Zinema Euskaraz ekimenak filma euskarara bikoiztu zuen, eta Magiaren Etxea euskaraz ikus daiteke hainbat aretotan uztailaz geroztik. Elgoibarren, ordea, ez. Zergatik? Ez dut ulertzen zergatik jarri duten gaztelaniazko bertsoa eta ez euskarazkoa, aukera erreala hori existitzen bada. Nire alabak oraindik ez daki gaztelaniaz, beste ume askok bezala. Herriko Antzokiko filma gehienak gaztelaraz ikusi behar ditu. Ez dut ulertzen.

Elgoibar herri euskalduna da eta jende askok euskaraz bizi nahi dugu. Herri Antzokiak, udalaren menpeko zerbitzu publikoa izanik, errealitate horri erantzuna eman beharko lioke. Eskerrik asko.

J.I.O.

► LIZTOR BELTZAK

2010etik 2014ra liztor beltz ha-biak Elgoibarren erlezainok kendu genituen (kudeaketa egoki batek liztorraren sarrera aurreikusi behar luke gainera IPPC). Dirua azaldu denean, ordea, denok ezagutzen dugun maki-

naria ustel autoritarioa jabetu da guztiz kudeaketaz, urtetan zehar existitzen ez zen protokolo batez berbetan jardun eta gero. Insustantziala iruditzen zait, izurrite eta baso gestioan espezializatu eta aurpegira barre egitea! Proiektua hainbat aldiz azalduta gainera...

Azkeneko gaiari buruz BARREneko Facebooken berba egin nuenean gainera, hurrengo egunean, Boer arrazako akerra hilik azaldu zitzaidan! Goian bego Moso!

Ekintzailetzari bidea itxi diozue udal-letxetik eta kudeaketa ez da behar bezalako. Sinadura bilketa ere egin nuen herrian eta gaia salatzeke ehunka herritarrek babesa azaldu zidaten. Mila esker!

Azkeneko berrien arabera, orain munizipalei abisatu behar zaie liztor kabiak topatzean... Sentitzen dut baina nik neuk kenduko ditut, nire eskumena baita, horrela diote titulazio eta jarduerak, nahiz eta ez didazuen ordainduko, etorkizuna jokoan dut (errentagarritasun apurra).

Fundamentu ez ona eta jokaera tris-tea, lan egiteko gogoia gutxitzen baituzue, hara! Tormus sinensis!

Mikel Etxabe Jauregi

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituhaz:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitz argitaratuko.

Lagunduko al diguzu ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA OSATZEN?

Aurreko bi urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?

Animatzen bazara, esan, ahal duzun azkarren, tonbolarako erregalua emateko prest zaudela. Azaroaren 25a izango da erantzuteko azken eguna.

Harremanetarako: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626

Eskerrik asko!



Txankakua merkatari elkarteak deskontu kanpaina jarri du martxan azaro osorako

Erosketa Bona 2015 izeneko deskontu kupoen kanpaina jarri du martxan Txankakua merkatari elkarteak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean. 40 euro ordainduta, 50 euroko balioa duten erosketa bonuak erabili ahal izango dira Elgoibarko 45 saltokitan.

Txankakuaren arabera, merkataritzaren jardueraren bultzatzea eta Elgoibarren kontsumoa sustatzea dira kanpainaren helburuak, eta horregatik atera dituzte kupoi hauek. Bonuak Rural Kutxan eskuratu daitezke, azaroaren 13ra arte. Guztira 1.000 bonu atera dituzte. Elgoibarren erroldatuta daudenek bakarrik jaso ahal izango dituzte bonuak; eta, bonu bana jasoko dute aurkeztutako NAN edo erroldatze agiri bakoitzeko. 50 euroko bonu hori, 25 euroko bi bonutan egongo da zatituta. Erosketa egiteko unean, bi bonu oso meta daitezke kupoi batean, hau da, 100 euroko balioraino. Tiketa ezin da zatikatu, berez erosketak 25 eurokoa edo gehiagokoa izan behar du. Bonuak ez dira inoiz diruagatik trukagarriak izango, produktua itzultzen bada eta besteren bat ez bada eramaten, merkatariak erosketa txartel bat bueltatuko du erosketaren zenbatekoarekin.

Kantu giroan Elgoibarko kaleak alaitu zituzten kale kantariak



Elgoibar kantuararen hiriburu izan zen zapatuan, urriaren 31n. Izan ere, kale kantariak lehen kantu eguna antolatu zuten eta inguruko herrietatik hainbat kantuzale erakarri zituzten. Urriko azken zapatu eguzkitsua girotu zuten. Kalek kale kantuan jardun ondoren, Maalako parkean herri bazkaria egin zuten. Kantuak ez ezik dantzak ere ez ziren falta izan.

Eguzketan, 'Beitxu-beitxu' lipdub-aren koreografia entseguak

Elgoibarko 58 taldek lipdub-a grabatuko dute azaroaren 28an, Euskarak 365 Eguzkiaren eguna ospatzeko. *Beitxu, beitxu!* kantarekin batera, dantza edo koreografia txiki bat ere prestatu du Josu Mujika dantzari eta koreografo elgoibartarrak, Kalegoen plazan bilduko den jendea dantzan jartzeko. Koreografia ikasteko aukera ere badago: Olaizaga Kirolegian, eguzki arratsaldeetan, 18:30etik 19:00ak arte.

Ekintzaileek diru-laguntza eskatzeko epea azaroaren 9an amaituko da

Debegesak gogoratu nahi du datorren azaroaren 9an amaituko dela ekintzaileentzako diru-laguntzak eskatzeko epea. Laguntza horiek, batetik, enpresa-idea bat izanik ideia hori aztertu eta garatu nahi duten ekintzaileei bideratuko zaizkie eta, bestetik, enpresa-proiektua abian jarri nahi dutenei. Xehetasun gehiago ekintzaile@debegesa.eus webgunean eskura daiteke edota 943 820 110 zenbakira deituta (Vanessa).

Europara iristen ari diren errefuxiatuei laguntzeko taldea

Siria aldetik Europara iristen ari diren errefuxiatu oldeari laguntza emateko taldea eratu dute Debabarrean. Talde honek Elgoibarko jendea animatu nahi du ekimen honetan parte har dezan. Ostiralero Elgoibarko Portalea kultur etxean biltzen dira, 19:30etik aurrera, eta hara agertzeko eskaria egin dute. Bestela, 676 894 191 zenbakira (Ane) deitzeko aukera ere badago.

Kalamuaren urdaiazpikoa, 4.637 zenbakiarentzat

Kalamua guraso elkarteak hil bukaerako txosnara gerturatutakoei eskerrak eman dizkie. "Giro ederra izan genuen eta gustura aritu ginen". Zozketatutako urdaiazpikoa 4.637 zenbakiari egokitu zaio (ordezkoa 3.794). Zenbakia duenak kalamua@google-groups.com helbidera idatzi behar du.

Danobat kooperatiba Euslan proiektuan murgildu da, enpresan euskararen normalizazioa gauzatzeko

Danobat kooperatibak euskararen normalizazioan beste aurrerapauso bat eman berri du, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako Euskal programan parte hartzea erabaki baitu, beste 11 enpresarekin batera. Euslan programa probako egitasmoa da eta 2017ra arte egongo da martxan. Enpresetako erlazioetan euskara nagusitzea bilatzen du egitasmoak. Parte hartuko duten 12 enpresetako 5.000 langile baino gehiagori eragingo die.

Idatziz zein ahoz

Danobatgroupeko enpresa guztiak 2017rako Bikain ziurtagiria lortzeko neurriak aplikatzen ari dira. Horrez gain, Danobat kooperatibak beste pauso bat gehiago eman nahi duela iragarri du eta laneko harremanak euskalduntzeko plan horretan parte hartzeko konpromisoa hartu du.

Euslan egitasmoa sinatu duten enpresen helburua da euskararen erabilera %90era iristea lan harremanetan, bai idatziz zein ahozko komunikazioan, edo gutxienez euskararen erabilera %20ko hazkundera izatea programan parte hartuko duten enpresetan 2017 urterako.



250 kilo gaztaina erre banatuko ditu Galiziako Etxeak azaroaren 14an



Arg.: Aitor

Udazkeneko bezala, Galiziako Kultur Etxeak Magosto jaia antolatu du. Azaroaren 14rako (zapatua) gaztainak jateko gonbidapena za baldu nahi du elgoibartar guztien artean. Leku Ederren gaztainak banatuko ditu Galiziako Kultur Etxeak 12:00etatik 14:00etara.

Elkarteko arduradunek iragarri dute 250 kilo gaztaina erre banatuko dituztela aurten. Gerturatzen direnek doan dastatu ahal izango dituzte gaztaina erre berriak.

Magostoko gaztainera gain, Galiziako hainbat jaki eta edari eros-teko aukera ere izango da. Galiziatik ekarritako txorizoak, belarriak, likoreak, eztiak, txokolata eta abar saltzeko zenbait postu jarriko dira.

Udal ordezkariak lore eskaintza egingo diete biktimei Memoriaren egunean

Azaroaren 10ean, Memoriaren Egunean, El-goibarko Udaleko ordezkariak ekitaldia egingo dute, 12:00etatik aurrera, biktimek gogoratzeko. Ekitaldi horretan, Udaleko ordezkariak senideekin batera gerturatuko dira Giza Eskubideen parkeko Gernikako Arbolapera, lore eskaintza egitera. Ondoren, biktime guztiak gogoratzeko isilunea egingo dute, eta adierazpen instituzionala irakurriko dute. Bozeramaileek oroigarri bana eskainiko diete senideei.

Datorren urteko Milagrosaren egutegiak salgai daude San Lazaro egoitzan

Urtea amaitzean den honetan, datorren urteko egutegiaren eskaintza hasi da martxan. Milagrosaren 2016ko egutegia, esaterako, San Lazaro egoitzan eskuratu daitekeela iragarri dute. Hango harrerara joan beharra dago, goizetan, 10:00etatik 12:15era bitartean eta arratsaldean, berriz, 17:00etatik 20:15era. Milagrosaren egutegiaren salmenta prezioa 1,60 eurokoa dela jakinarazi dute.

Perretxikoak, basoan ezkutuan egotetik jendearen aurrera

Perretxiko sasoia bete-betean da, eta zale asko joan ohi da mendi eta basoetara estimatutako uztaren bila. Adi-adi ibiltzen dira zuhaitzen artean, lurretik burua altxatzen ezkutuan dauden perretxikoak aurkitzeko. Karakate Mikologia Elkarteok ezkututik agerira atera nahi izaten dituzte perretxikoak, jangarriak izan ala ez. Horretarako 40 urtean ari dira perretxiko lehiaketa hasieran eta erakusketa gero antolatzen. Aurten, azaroaren 12tik 16ra bitartean egingo dituzten jardunaldi mikologikoak antolatu dituzte.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Udazken koloretan murgildu eta basoetan gero eta ugariagoak dira perretxikoen usainean ibiltzen diren zaleak. Udazken osoa da perretxiko sasoi, baina hilabeterik onena urria dela esan digu Karakate Mikologia Elkarteo Ignacio Mugerzak. "Urteotan pixka bat atzeratzen joan da sasoi, eta orain urritik aurrera ere jaso ahal izaten dira. Espero dut aurten ere hala izatea bestela erakusketan ez da perretxikorik izango". Karakatek antolatzen duen perretxiko erakusketaz ari da. Aurten da 40. aldia eta lehiaketatik erakusketarako pausoaz aritu zaigu Mugerza. Umetan, lehiaketako partaide izate-tik antolatzaileerako bidean ikasitakoak ere kontatu dizkigu.

Elgoibarko perretxiko lehiaketa Euskal Herrian lehenengoetarikoa izan zen eta horri esker asko hedatu da mikologiari buruzko ezagutza herrian. Lehiaketa hasieran edozein perretxiko jaso eta izen zientifikoa-rekin bereizten ziren. Baina gero, bildutako perretxikoen aniztasuna kontuan hartzen hasi ziren, eta baziren puntuazio eta sari bereziak jasotzen zituzten sortak. Lehiaketa aurreko egunetan, baina, jendeak mendian "sarraskia" egiten zuela esan digu Ignacio Mugerzak. "Espezie bakoitza puntuatzen zen, baina espezie batetik agian bost kilo ekartzen zituzten nahiz eta batek eta bost kilok puntuazio berbera izan". Hori zela eta Aranzadi Elkarteo mikologia sailak eskatu zuen lehiaketa kentzeko eta 2007an erakusketarekin hasi ziren. Karakatek antolatzen du, herrian, batik bat umeen artean mikologiaren eta naturarenganako ezagutza eta errespetua sustatzeko. Aranzadik laguntzen die jasotako perretxikoak bereizten. "Batzuk bereizten badakigu, baina Euskal Herrian 3.500 perretxiko daude zerrendatuta, beraz ez daukagu denen berri izaterik".

ASMO BERRIAK

Kalegoen plazako lehiaketatik Kultur Etxeko Sotora pasatzean perretxikoak basoan bezala pixka bat ezkutuan geratu dira eta



aurten erabaki dute beste ekintza batzuk antolatzea jardunaldi mikologikoek herrian oihartzun handiagoa lortzeko.

Perretxikotara joan eta zein hartu ez dakienak oinarritzko ezagutzak jasotzeko hitzaldia izango da batetik. Besteak beste azalduko dute perretxikotara otarrarekin joan behar dela perretxikoak

airatu egiten direlako eta ez direlako hain erraz xehatzen. Gainera, beroa eginez gero, plastikozko polsetan hondatu egin daitezke, eta horrek kalteak sortu ditzake jan ondoren. Bestalde, lkastolan eta Herri Eskolan perretxikoei buruzko galdetegiak banatu dituzte gaia lantzeko. Baina herrira zabaltzeko ez da bide hoberik perretxikoak jatea baino. Beraz, 20 tabernak perretxikoekin egindako pintxoak jarriko dituzte barixaku eta zapatu arratsaldean. Domekako erakusketan bestalde, askotariko perretxikoak ikusteko aukera izango da. "Zapatuan Kultur Etxeko sotoan prestatzen egongo gara Aranzadikoekin eta norbaitek 16:00ak baino lehen perretxikoak ekarriko balitu eskertuko genuke. Baina argi utzi nahi dugu espezie bakoitzeko bat edo bi izan behar direla ez kilo pila bat, lehiaketa horregatik kendu baitzen".

Lehiaketa kendu bai, baina 40 urtean jardunaldi mikologikoak antolatzen pertsona bertsuak ibili dira eta "etena egon bada, besteak beste, lekukoa hartuko dutenen faltagatik izan da. Aurrerantzean jarraituko dugu eta eskertu nahi genituzke urte hauetan lanean gogoz aritu direnak. Gainera, aurten ere laguntzeko prest azaldu dira".

ZALANTZAREN AURREAN EZ HARTU

Hainbeste urte eta gero ondo jakingo dute perretxiko jangarriak eta jan behar ez direnak bereizten, baina ez da erraza idatziz labur azaltzea "Hemen gehienetan jaten ditugunak ondo ezagutzea da garrantzitsuena eta zalantzaren aurrean ez jatea. Bestalde, beti komeni da perretxikoak ondo eginda jatea".

Jateko, baina, aurkitu egin behar dira, eta inguruotan gehien daudenak hartzeko bada zalantzarik. Onddoen bila, "zoroen pare dabil jendea, eta hiru-lau espezie egon arren, jatekoak direnak erraz ezagutzen dira". Gibelurdinak amanita phalloidesarekin nahasten dira. "Amanitak bolba eta eraztuna eduki arren baliteke erorita edo moztuta egotea". Kuletoa edo gorringoa amanita caesarea da "Cesarren perretxikoa, jateko onenetariko", baina amanita muskariarekin nahas daiteke, puntutxoak dauzkan ipuinetako perretxiko haluzinogenoekin". Esnegorriak edo lactarius deliciosusak eta lactarius torminosusekin nahasten dira. Izenagatik besterik iruditen arren, maltzurak clitocybe nebularisekin nahasten dira. "Maltzurra berez jangarria den arren kalte egiten die zenbaiti. Euskal Herrian gehien nahasten direnak hauek dira eta intoxikazio gehien hauekin izaten dira. Nik badaezpada ez ditut hartzen", esan digu Ignacio Mugerzak.

Berak mendirako zaletasuna beti izan du, baita perretxikotarako ere, "baina sekula ez naiz izan mendira joan eta kilo mordo hartzen dutenetakoa".

Perretxiko biltzeko toki onaren sekretua gordetzeaz galdetuta, esan digu perretxikoak aurkitzeko ibili egin behar dela eta toki egokia topatzea zaila dela. "Asko ateratzen diren tokia aurkituz gero zaintzen saiatzen gara. Ez norberak biltzeko bakarrik, mantentzeko ere bai. Zenbat eta jende gehiago joan toki horrek

perretxiko leku izateari utziko dio". Bildu ez ezik saltzen dituenik ere bada eta "legez kanpoko izateaz gain, naturaren kalteko ere bada". Horrelakoak ez gertatzeko kuotak jarri dituzte hainbat lekutan. "Hein batean aldekoa naiz, babestea ahalbidetzen duelako, baina bestetik ez zait egokia iruditzen mugatzen duelako perretxiko biltzea ere dirudunek baino ez egitea".

Erakusketan ere eskuorriak banatuko dituzte mikologiari buruzko arauak eta natura babesteko argibideak jasoz. Hala ere, gehienei biltzea baino jatea gustatzen zaie eta besteak beste elkarrean sumatzen da irrika "Karakaten badaude oso zaleak eta askoren bila joaten direnak, baina hori edozein elkartetan izaten da". Beraz, aukera izanez gero udazken honetan ere perretxikoak jango ditu askok.

40. JARDUNALDI MIKOLOGIKOAK

12 EGUENA

20:00 Hitzaldia: *Perretxiko jangarriak eta toxikoak bereizten*. Musika Eskolan.

14 eta 15 BARIKAKUA ETA ZAPATUA

Arratsaldean, Perretxiko pintxo ibilbidea erriko tabernetan.

- **Ametza:** Ogi txigortua, urdaiazpikoa, piper berdea, belarri landua eta berakatza.
- **Ibai-Ondo:** Perretxiko tosta eta bakailoaa pil-pilean.
- **Gautxo:** *Juntos y revueltos*.
- **Gorbea:** Perretxikoak, urdaiazpikoa, tipula, perrexila eta berakatza.
- **Iturri:** Txanpiñoia plantxan eta urdaiazpiko salteatua galeper arrautzarekin eta foie txirbilekin.
- **Jai Alai:** Txanpiñoiak saltsan.
- **Larre:** *Mendiko ravioliak*: Ogi zerealak, trufa ravioliak, onddo saltsa eta onddo salteatuak.
- **Mahats:** Onddoak, foiea eta gazta.
- **Tantaka:** Karduziza galeper arrautzekin.
- **Usua:** Txanpiñoia haragi ontzutuarekin.
- **Gabi:** Askotariko perretxikoz beteriko hostorea.
- **Ilunpe:** Txanpiñoi eta espinaka lasagna.
- **Iriondo:** Txanpiñoiak plantxan Iriondo saltsarekin.
- **King Kong:** Onddo eta bexamel edalontzixoa.
- **Malape:** Onddo nahaskia.
- **Orbea:** Perretxikoak ardo zuriarekin.
- **Pilon:** Txanpiñoi, hirugihar, gazta eta oilasko 'burrito'-a.
- **Urkiola:** Onddo tartaleta, oilaskoarekin eta Urkiola kremarekin.
- **Txarriduna:** Karduziza gratinatua eta hirugiharrarekin.
- **Viento Sur:** Txanpiñoiak saltsa 'mintxo'-rekin.

15 DOMEKA


11:00 Perretxiko erakusketa. Kultur Etxeko sotoan.

13:30 Haurrentzako opari zozketa, eskoletako galdeketa partaideentzat.

Ondoren, Opari zozketa, erakusketako bisitariarentzat.

16 ASTELEHENA

Eskolen bisita erakusketara.



Hamaika ikusteko jaio ginen...

Egia da: galtzerdi zuriak edo estanpatuak mokasinekin konbinatzeak begiko mina sortzen dio askori, orain... "Ez, nik ez dut horrelakorik jantziko. Hori baino gauza zatarragorik!". Zenbat bider esan ote duzu horrelako zerbait. Hilabete batzuk barru, ordea, erabat ohituta egongo gara hori ikustera. Eta, berabada, hitza jan eta zeuk ere jantziko dituzu. Batek daki!

Denboraldi berriek tendentzia berriak dakartzate. Sarri, harritu egiten gara lehen momentuan. "Baina zer da hori? Diseinatzaileak zoratu egin dira, ala?". Ondoren, itxura arrotz horiek ikustera ohitzen gara, harik eta geure buruak proposamen berrietara egokitu arte.

Praka estu eta tiro altukoekin

ibili gara azken boladan. Horretara ohitzen hasi garenean, galtza nasaiaik omen datoz. Nork pentsatuko zuen 60. eta 70. urteetako praka barren zabal haiek bueltatuko zirela? Seguru zaude horiek ez dituzula inoiz jantziko?

Tendentzia kontrajarriek gure buruan kontraesan ugari sortzen dituzte. Hamaika adibide jar litezke. Oinetakoekin, esate baterako. Nork esango zigun dotore jantzeko kirol-zapatilak larruzko beroki batekin konbinatzea posible izango zela?

Konturatu gabe joera berriak barneratzen ari gara. Praka apur-tuen moda, esaterako, ez da gaur asmatutakoa. Zer pentsatuko zuten garai bateko aitiba-amamek apurtutako arropa berriak erosteari buruz?

Pentsaezina bai, baina ez ezinezkoa. Betaurrekoekin gertatzen ari den bezalaxe. Lehen zine izarren kontua zen betaurreko



Tendentzia kontrajarriek gure buruan kontraesan ugari sortzen dituzte. Hamaika adibide jar litezke.

Lurdes
ile-apaindegia

Lurdes ile-apaindegia
Pedro Migel Urruzuno kalea, 10
943 256 105

Jai zoriontsuak herritar guztiei

Gizonezkoen ile-apaindegia JOSE ANTONIO



Zerbitzu bakoitzean, toaila eta erabili eta botatzeko bizar-xafiak ere sartzen dira, higienezko gaineko araudiak eskatzen duena beteaz.

Errosario kalea, 30 - Elgoibar
Tel: 943 741 492

- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Bizar txukuntak egiten ditugu
- Ilea zaintzeko KERASTASE eta L'OREAL tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako



Kontsultatu hemen ordutegiak: www.peluqueriajoseantonio.com



diferenteak izatea (poltsa, beroki edo oinetako diferenteekin konbinatu ahal izateko). Orain ez, ordea.

Poltsa! Jadanik ez da soilik emakumezkoen kontua! Mutil gazteak zein ez hain gazteak ere ohartu dira osagarri honen praktikotasunaz... Bitxia bada ere, errazago onartzen ditugu haurren oinetakoetan aldaketak. Ohituak gaude era guztietakoak ikusten: gurpildunak, argidunak, lentejueladunak, brillantinadunak... Umeek nagusiok baino aurreiritzi gutxiago dituzte eta era honetako oinetakoak erakargarri egiten zaizkie.

Dena ez da arropa. Go-goan al dituzue orain hamar-kada batzuk edade bateko



andrazkoek eramaten zituzten permanente erraldoiak? Orrazkera horrek ileapaindegietan uzten zuen usaina itzuli da. Laster ohituko gara usain horretara, garai batean ohitu ginen moduan. Ileanpaitzaileari "motza, modernoa eta orrazteko erraza" eskariari loturik, norbait izango dugu alboan, burua erruloz beteta.

Gizonezkoen bizarrarekin beste hainbeste. 80ko hamarkadako mutil bizardunak tendentzia dira orain. Harrigarria benetan, alkandora koadrodun "basomutilak" modan daude egun. Ez hori bakarrik, sexiak ere badira!

PAUSOA
 UMEEN OINETAKO DENDA
 688 802 802
 San Bartolome 3, behea - Elgoibar
 f pausook pausook

Ferpi
moda
 San Bartolome 38,
 Elgoibar
 Tel.: 943 740 815

Zure konponketa tailarra
 Den-den-dena
 josten dugu: larrea,
 neoprenoa, gartinak,...

Ez izan zalantzarik,
eskatu
 aurrekontua!

2 konponketa egiteagatik, beste bat doan*
azaroaren 13ra arte.
 *galitza edo kamiseta konponketa

Larruzko edozein arropa konpontzen
 eskarmentu handia dugu. Ez zaizu damutuko!


Idama

- Ileanpaindegia ● Estetika ● Solarium-a
- Ileen azterketa mikroskopikoa
- Mikropigmentazioa

**Orain, laserra eta mediku
 nutrizionista dauzkagu!**

Zatoz eta galdetu!

Antonio Arrilaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026



Teknika aurreratuak estetikan eta ileapaindegietan

Medikuntza eta estetika elkarrengandik gero eta gertuago daude. Aldaketa edo arazoei irtenbideren bat ematea nahi duenak, beraz, adituengana joan besterik ez du egin behar. Urtetan behera ez egin arren, itxuraz gaztetzeko aukera eman dezakete edo kanpo irudiak hainbeste kezkatzen gaituen garaiotan gero eta berriagoak diren teknologiek gure irudia ere berrituko dute.

Azala kolorez janzteko edo orbainak, granoak edo zimurrak desagertarazteko, azazkalak indartzeko zein begirada erakargarriago egiteko, ohikoena makilajea erabiltzea izan bada ere, azken

urte hauetan medikuntza eta teknologia aurreratuetatik geroz eta gehiago duela esan daiteke.

Ilea modu ahalik eta berezienean moztu, tindatu eta orraztu, krema bereziak erabili, argizariarekin depilatu... Horrelako bideak erabili izan dira, eta oraindik ere erabiltzen dira edertzeko edo eder itxurak egiteko.

Garaiak aurrera doaz, ordea, eta azalaren eta ilearen itxura aldatzeko bestelako teknika aurreratuak erabiltzen dituzte gaur egun estetika zentro eta ileapaindegietan.



Medikuntza eta estetika elkarrengandik gero eta gertuago daude.



Pedro Migel Urruzuno, 27
943 743 132
garanzeta@gmail.com



Eskuz landutako teknikan adituak

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

- Aurpegiko azala garbitzea
- Kateobitala
- Hidratazioa
- Erregenerazioa
- Lifting-a
- Zimurren aurkakoa
- Makilajea
- Betile eta bekalnak tindatzea
- Betileetako luzapenak

SOLARIUMA

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

- Zelulitisaren aurkakoa
- Tinotzailea
- Erditze-ostekoa
- Algak eta buztina
- manikura eta pedikura

DEPILAZIOAK

- Argizari beroaz
- Argizari epelaz
- Elektrikoa

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



LEIRE
JANTZIDENDA

Azpigoeta, 24
MENDARO
Tel.: 943 033 029
leirejantzidenda@outlook.com

 leire jantzidenda

estetikaalire

- * Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- * Ongizate tratamenduak
- * Masajeak
- * Fotodepilazioa
- * Mikropigmentazioa
- * Manikura
- * Solariuma
- * ...

Upatiz zaharra, 1. beheko
Tel.: 943 531 636
Elgoibar





Ilea luze, motz, hori, gorri edo beltz, orrazkerak askotarikoak izan daitezke, baita ilearen arazoak ere. Egunean ehun iletik gora jaustea kezkatzekoa izan daiteke, baita zahia, koipea, ile lehorra, dizdirarik gabea, liso eta indarrrik gabea, orrazteko zaila izatea ere. Hori guztia garaiz atzemanetz gero bada irtenbiderik.

Aholkuak ez dira kontu arrotzak, batez ere gorputzeko zein ile kendu eta zeintzuk mantendu (edo gehitu) behar ditugun jakiteko. Irudi aholkulariarena, beraz, ez da gauza berria.

Gorputzeko edozein atalen gainean kezkarik sortuz gero, estetika alorreko profesionalak argituko digu arrazoa eta konponbidea zein izan daitekeen. Kasua lantzeko makina bereziak, azterketa mikroskopikoak, analisiak, etab... medikuntzatik zenbat eta gertuago egon konponbidea ere zehatzagoa izango da. Besteak beste ozonoa, koipea hurrupatzeko makina, birsorgailua, lurruna, izpi infragorriak edo laserra erabiltzen dira gure ardura

bihurtu den atal horren osasuna hobetzeko, eta txura naturalez "luzitzeko".

Laserrak erabilera asko dauzka estetikan. Besteak beste depilaziorako asko erabiltzen da, baita azaleko orbainak sendatzeko edo gutxitzeko ere. Eguzkiak hezurrei on egiten diela esan ohi da, baina era berean azalari zahartze goiztiarra eragiten dio zimur eta orbainekin. Makillajearekin estaltzea zen garai batean irtenbidea; orain ordea, zaidu eta babestu beharreko kontuak dira, ez da itxura kontua, osasuna eta bizi kalitatea hobetze aldera, baliabide ugari dauzkagu, makinek askotariko aukerak ematen dituzte: argi pultsatua, irrati-maiztasuna...





Luvik

OINETAKOAK

San Bartolome, 28 - Tel.: 943 744 345



Konfiantza osoko markak



Eroso eta gustura erabiliko dituzu luzaroan





**ileapaindegia
estetika**

943 747 4 21

San Bartolome, 33 bajo - ELGOIBAR

NOA

 Noa Estetika



AZALEA

Edergintza

M^a Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behe - 20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 740 310

Gorputz eta aurpegi estetika

Negozioa alokatzen da.
Irekita dago, martxa onean.



ROSI

Ileapaindegia

943 742 725

San Inazio, 4 behe
Elgoibar

► Udalak erabaki du 2016rako zerga eta tasa gehienak izoztea hondakinenak eta kirol patronatuarenak salbu

E lgoibarko Udalbatzarrak urriaren 29an egin zuen osoko bilkura, eta zergak eta tasak izan ziren gai nagusia. 2016rako zerga eta tasa gehienak izoztea onartu zuten aho batez. Udalak tasa eta ordenantza fiskalen aldaketa egiteko KPla (Konsumorako Prezioen Indizea) hartu du oinarri. EAEn abuztuan -0,2a izan da eta irailean -0,5a. Horregatik, erabaki dute, azken bi urteetan bezala, oraingoan ere ordenantza fiskalak izoztea.

Azken bi urteetan oraingoan bezala, zergak eta tasak izoztu zituzten, eta EAJk dio hori ekonomiaren bilakaeraren isla dela. "Udal honek zergadunen poltsikoak gehiago ez estutzea erabaki zuen aurrekoetan, baita oraingoan ere".

Gainera uste dute merezi duela aurrrera begira jartzea Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkunde aurreikuspenak zein diren ikusteko. "EAEn 2015erako %2,7ko BPGren hazkundera aurreikusten da eta 2016rako %2,5ekoa. "Pixkanaka bada ere, ekonomiak gora egiteak ekarriko du zerga sistemaren hazkundera eta paraleloki aurrekontu publikoena".

Horren harira EAJk gogorarazi du Elgoibarko Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa "osasuntsua" dela. "Horrek ahalbidetu du zergadunek igoera nabarmenik ez pairatu izana azken urteotan. Hala ere, etorkizuneko erronkei aurre egiteko, hurrengo urteetan baliabideak handitu beharra izango dugu eta abiapuntu jasangarri batetik hastea gauza ona da".

Igoerak

Tasa gehienak izoztu badituzte ere, bi salbuespen izan dira: hondakinen eta kirol patronatuaren gaineko zergak. Hondakinen tasa %3,2 igoko du Udalak. Izan ere, Debabarreneko mankomunitateak Udalari eskaintzen dion zerbitzuaren kostua igoko du. Baina Udal Gobernuak EH Bilduren proposamena onartu ostean, denon ar-



tean erabaki dute saritu egingo dituztela bosgarren edukiontzia erabiltzen duten herritarrek. Zabor organikoa edukiontzi marroira botatzen dutenentzat %1,5 igoko da tasa 2016an eta botatzen ez dutenek, berriz, %5,75 gehiago ordaindu beharko dute tasa hori. Beraz, hondakin organikoa birziklatzen dutenek 154,47 euro ordainduko dituzte eta gainontzekoek 193,13 euro. Hondakin organikoekin konposta egiten duten herritarrentzat %5,75 mantenduko da.

PSEko zinegotzi Nerea Alustizak udalbatzarrean proposatu zuen herrian behar larrian dagoen jendeari zergak ez izoztea. "Hori esan nuenean jakinarazi zidaten teknikoki zaila dela eta beste bideren batzuk erabili beharko lirakeela. Beraz, udalbatzarrean onartu egin genuen guk ere azken proposamena eta espero dugu Udalak, herritarren zerbitzura dagoenez, gure eskaria ahal den neurrian kontuan hartuko duela herrian badagoelako jendea egoera ekonomiko larrian".

Udal Kirol Patronatuari dagozkio beste aldaketak. %3koa izango da igoera abonuetan eta preziorik baxuena duten ikas-tarotetan (zumba, aerobik eta spinning).

EAJren, EH Bilduren eta PSEren baieztok botoak jaso ziren Udalbatzarrean, beraz, aho batez, onartu zituzten ordenantza fiskalei zegozkien aldaketak.

Lan-mahaiak

Bestalde, erabaki zuten hemendik aurrrera bi lan-mahai eratzea. Hondakinen ingurukoa bat eta bestea herrian hutsik dauden etxebizitzien alokairua sustatzeko programa bideratuko duena.

EH Bildu asko poztu da Udal gobernuak aintzat hartu dituelako beren proposamenak. "Sinatzea lortu dugun akordioaren arabera, etxebizitzien alokairua sustatzeko programaren bitartez Udal Gobernuak konpromisoa hartu du diru nahikoa bideratzeko herrian hutsik dauden etxebizitzien merkaturatzea sustatzeko eta etxebizitza horien eskuragarritasuna handitzeko, bereziki gazteei begira", dio EH Bilduk.

Horrez gain, beren ustez, "hondakinen mahaia osatzeak aukera emango digu emaitzen jarraipen zorrotza egiteko eta helburua lortzeko -hondakinen %60 gaika biltzea- beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzeko".

Perlak talde zarauztarraren kontzertua gaur gauean Sotoan



Euskal musikagintzan arrakastaz lekua hartzen ari den talde gazte baten kontzertua antolatu du gaur (barixakua) gauerako Sinuosek: Perlak. 23:00etatik aurrera, talde zarauztarraren doinuekin gozatzeko aukera izango da, 3 euroko sarrera ordainduta. Hiru neskak eta mutil batek osatutako talde hau 2013an eratu zen eta iaz Gaztea maketa lehiaketako finalera iritsi zen. *Perlak* izeneko diskoa kaleratu ondoren, kontzertu ugari eman dituzte Euskal Herriko hainbat aretotan. Kritikarien arabera, intentsitatea, hurbiltasuna eta berehalakotasuna dira taldearen ezaugarri nagusiak.

Egur arte tailerreko ikasleen lanekin erakusketa zabalduko dute gaur



Egur arte tailerrak ikasleek egindako lanak Elgoibarko herriari erakutsi nahi dizkio Elgoibarko herriari. Horretarako, erakusketa antolatu du Kultur Etxeko erakusketa gelan. Gaur (barixakua) irekiko dituzte erakusketa gelako ateak eta ikasleen artelanak azaroaren 15era arte egongo dira ikusgai.

Egur arte tailerrean 65 haur ari dira eta horien sormenak ikusi ahal izango dira. Horiez gain, Egurren ari diren helduek ere beraien artelanak eramango dituzte jendaurrera: labeko esmalteak, oleoak, akuarelak eta marrazkiak erakutsiko dituzte.

Erakusketa arratsaldez bisitatu ahal izango da, 18:30etik 20:30, astelehenetik zapatara bitartean.

Jolas ikastaroa, euskaraz ez dakiten gurasoentzat

Euskaraz ez dakiten gurasoek euren umeekin euskaraz jolastu ahal izateko ikastaroa antolatu du Atxutxiamaikaren Kiribilduz egitasmoak. Gaztelaniaz izango da. Azaroaren 14an, 10:30etik 12:30era egingo dute. HH2-HH4ko umeen gurasoentzat pentsatuta dago ikastaroa. Umeentzako zaintza zerbitzua ere eskainiko dute.

Izen-ematea Elgoibarko Izarrako bulegora joanda egin beharko da edo bestela www.elgoibarkoizarra.eus webarean bitartez, azaroaren 10a baino lehen. Matrikula 6 eurokoa da (bazkideek 5 euro).

Irri Herri Anitz ikuskizuna

Bestalde, Atxutxiamaikak *Irri Herri anitz* ikuskizuna antolatu du gaur (barixakua) arratsalderako. Emanaldia Herriko Antzokian izango da, 17:30etik aurrera. Sarrerek lehiatilan bertan esku-ratu ahal izango dira. (umeak 3 euro, nagusiek 5).

Irrien lagunak ikuskizun hau Galder Perezen gidioan oinarrituta dago. Azoka egun batean, Largabistak Tiriatxoren laguntzaz postua jarriko du. Era guzietako lagunak gerturatuko dira, mundu guzitik etorritakoak eta bakoitzak bere kultura, hizkuntza, ohitura, nor-tasuna, eta kolorea ekarriko du.



▶ Elgoibartik Fisterrara eta buelta

ION ASENSIO

Ion Asensio 1.780 kilometroko bidaia osatu du bizikletaz, Elgoibartik Galizako Fisterrako Itsasargiraino joan-etorria eginda. Kirola, abentura eta adiskidetasuna uztartu dituen esperientzia izan dela dio 50 urteko elgoibartarrak.

- ASIER ORBEA -

Batez beste 100 kilometro egin ditu egunean. Bere esanetan ez dira asko, ezta gutxi ere, kontutan hartuta 1998an Iberiar Penintsula kostaldetik zeharkatu zuela, lurmutur ezkutu eta txikienak ere pasatuz. 5.960 kilometro egin zituen guztira 50 egunean; eta 200 kilometrotik gorako hainbat etapa. Balentria hura egin ostean, baina, ez zuen bidaia gehiagorik egin bizikletaz, harik eta bidaiatzeko harra berriz piztu zaion arte. "Barruko harra eta denbora librea edukitzea", zehaztu du. Bizikleta hartu eta Fisterrara joan-etorria egin zuen irailan: 1.780 kilometro, 18 egunetan. Lehen bidaia 32 urterekin egin zuen eta 50 urterekin egin du oraingoa. Adinak sosegua eman diola dio eta une bakoitza "kontzienteago" bizi duela.

Ez ahazteko moduko abentura-bidaia izan da Asensioentzat, besteak beste gauero lo non egin behar zuen ez zekielako, bidean adiskide egin dituen bidaiariengatik, ikusitako paisaiengatik, eguraldiaren gorabehera guztiak bizi eta jasatea tokatu zaiolako... horiek eta beste hainbat pasadizok egin dute berezi bidaia, eta berrituta itzuli da eguneroko bizimodura. Bidaiak asko eman dio eta berak ere nahi izan du, nola edo ahala, trukean zer-bait ematea. Hala, ostatu hartu zuen zenbait aterpetetan gosariak zerbitzitzen lagundu zuen eta egoera txarrean zeuden altzariak konpontzen ere aritu da, barruak hala eskatuta.

Une beltz bakarra izan zuela dio: "Galizia eta Asturias arteko mugan bide bazterrean urtxakurra hilda ikusiteak eman zidan tristura". Izan ere, naturazalea da oso Ion. Aitortu du bidean zuhaitz edo lore deigarriren bat ikusiz gero, behin baino gehiagotan desegin zuela bidea argazkia ateratzeko. 300dik gora argazki atera zituen. Kantauriko kostaldeko paisaiekin liluratuta



Ion Asensio, Fisterrara egin duen bidaiako une batean, eta behean BARRENeke portadan, 1998an, Iberiar Penintsulari bizikleta gainean buelta eman zionean.

itzuli da, eta berak eginiko ibilbidea edo nori gomendatzeko modukoa dela uste du. Gainera, nabarmendu du, erraztasun asko eskaintzen dituen bidea dela, batez ere Donejakue bidearekin bat egiten duelako hainbat tartetan. Bere berbetan nagikeria da oztopo handiena horrelako abentura bat hasteko. Berak ez dauka beste 18 urte itzaroteko asmorik. "Orain ez dago geratuko nauenik", dio, eta hasita dago bidaia berriekin ametsetan.

Lara Urain eta Julen Salaberria nagusi pala txapelketa mistoko finalean



J oan zen barixakuan amaitu zen bigarren Pala Misto Txapelketa. Hamazortzi bikotek hartu dute parte aurten. Kalegoen plaza jendez gainezka zegoela jokatu zuten finala Lara Urainek eta Julen Salaberriak Olatz eta Igor Txurruka anai-arreben aurka. Lehenengoak gailendu ziren 22-19, partida berdindu eta seriea jokatu ondoren.

Alcorta Kopatik kanporatu du Bidasoak



Euskadiko Kopako final-laurdenetako kanporaketa jokatu zuten Alcorta Forging Groupek eta Bidasoak-irunek, eguaztenean, Olaizaga kiroldegian. Lehen zatia parekatua izan zen, baina bigarrenengoan nagusi izan ziren irundarrak eta 15-31 irabazi zuten partida. Honenbestez, Bidasoak sailkatu da finalerdiak jokatzen. Ohorezko B Mailan jokatzen du Bidasoak, Alcortak baino maila bat gorago, eta Asobal Ligara igotzeko hautagai nagusietakoa da.

Emaitzak

FUTBOLA

Aloña Mendi 2 – Haundi 2
Elgoibar 6 – Alle Punta 0 (1. erreg.)
Elgoibar 3 – Añõña Mendi 3 (Jub.)
Bergara 2 – Elgoibar 2 (A kadeteak)
Elgoibar 1 – Ikasberri 1 (B kadeteak)
Elgoibar 1 – Eibar 1 (Ohorezko. inf.)

ARETO FUTBOLA

Aurrera Vitoria 8 – Concepto Egile 3 (2. B maila)

SASKIBALOIA

Viento Sur Elgoibar 60 – Zast Zarautz 43

ESKUBALOIA

Muskiz 26 – Lauko Elgoibar 23 (Sen. emak.)
Alcorta Forging Group 30 – Bidasoa B 33 (Sen. giz.)
Alcorta Forging Group 15 – Bidasoa 31 (Euskadiko Kopa)
Legazpi 23 – Gabaz 26 (Sen. mut.)
Tecnifuelle 20 – Errotaberri 23 (Jub. mut.)
Arrasate 11 – Beristain banaketak 34 (Jub. mut.)
Pneumax Elg. 22 – Errotaberri 17 (Kad. neska.)
Casa Astigarraga 28 – Eibar Eskubaloia 11 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 33 – Ereintza 18 (Kad. mut.)
Deca Elg. 44 – Saieko 29 (Kad. mut.)
Aloña B 3 – Cometel 34 (Inf. mut.)
Federopticos Ikus 5 – Aiala A 25 (Inf. neska.)
Hotel Txariduna 23 – Pulpo 17 (Inf. mut.)

Agenda

PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 6
21:15 Lagunak – Altxatarra (2. Mailako Gipuzkoako pala txapelketa)

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 8
12:30 Concepto Egile – Zierbena (2. B maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 7
09:00 Elgoibar – Ilintxa (Inf. txiki)
12:00 Elgoibar – Burumendi (1. Maila kad.)
16:00 Elgoibar – Eibar (Ohorezko kad.)

ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 7
10:00 Cometel – Ikus (Inf. neska.)
11:15 DarioBus – Aloña B (inf. neska.)
16:00 Deca – Amenabar (Kad. mut.)
17:30 Beristain – Urola (Jub. mut.)
19:30 Lauko – Tejina Tenerife (Senior emak.)
Domeka, 8
10:00 Murgil – Canterias Dominguez Pulpo (Inf. mut.)
11:30 Gabaz – Bergara (Senior mut.)

ESKUBALOIA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 8
09:30 Elgoibar – Hernani (Aleb. mut.)
10:30 Elgoibar – Hernani (Aleb. neska.)

ESKOLA KIROLA

Zapatua, 7
09:30 Eskubaloia, Ikastolan (Benjaminak)
09:30 Eskubaloia, IMH kiroldegian (Benj.)
09:30 Saskibaloia, Herri Eskolan (Alebinak)

LANA.....
Eskaerak

Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanetarako prest. 685 771 734.

Nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbitasun lanak egiteko prest. Behar bereziak dituzten pertsonekin esperientzia. 631 562 380.

Garbiketa eta sukaldari laguntzaile lanetarako edo umeak eta adinekoak zaintzeko prest. 602 146 153.

Auto eta kamioi mekanikari, soldatzaile, iturgin -ur instalatzaile karnetarekin- lanetarako prest. 602 343 815.

Garbitzaile, gozogile edo jostun lanetarako prest. 602 346 336.

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. 638 338 816.

Portalak garbitzeko prest. 617571210.

Adineko jendea zaintzeko prest. 631 832 767.

Adinekoak egunez eta gauzez zaintzeko, sukaldari-laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. 637 074 529.

Nagusiak zaintzen ditut etxean zein egoitza edo ospitalean, arrotsaldez zein gauzez. Gida baimena daukat. 631 343 232

Adinekoak edo umeak zaintzen edo garbiketari lan egiteko prest. 632 454 417

Umeak zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko nitzuke. Orduka edo etxean bizita. Taberna eta portale-

tako eskailerak ere garbitzen ditut. 631 098 995.

Umeak zein nagusiak zaintzen ditut eta garbiketa lanak ere egiten ditut. 943 748 899 / 685 724 861.

Nagusiak zaintzen, sukalde laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. 661 064 027.

Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz. 677 259 560.

Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanak egiten egingo nuke lan. Egun osoz nahiz orduka. 684 318 696.

Umeak zein nagusiak zainduko nitzuke orduka, bai eta garbiketa lanak ere. 663 331 119.

Nagusiak zaindu, zein garbiketa lanak egiteko eskaintzen naiz. Orduka zein etxean bertan bizita. 686 077 316

Sukaldari lanerako prest. 632 198 561

Garbiketa lanak egiteko zein nagusiak zaintzeko prest. 943 254 087.

Adineko edo umeak zaintzeko, plantxa egiteko, sukaldari laguntzaile lanerako edo portalak garbitzeko prest nago. 631 562 380.

IHko eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. 615 768 310

Eskaintzak

Esperientzia duen zerbitzaria behar dugu Elgoibarko taberna batean. Bidali Curriculum: elgoibarlan@hotmail.com

Enpresa mailako ingeles irakaslea behar dut. 688 639 371

Pertsona bat behar dugu LH3ko 3 umeri frantses eskolak emateko. 620 578 702

LH5 eta DBH4rako klase partikularrak etxean emateko pertsona behar da. 617 386 198

Artezte makinetan edo CNC zentroetan esperientziadun ofizialak behar ditugu. Bidali curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxitila. 20600 Eibar.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Babes ofizialeko etxebizitza salgai, prezio tasatuan (130.000€ inguruan). 2 logela, garaiea, trastelekua eta igogailuarekin. 628 115 677

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

Salmenta

San Bartolome kaleko eraikin berri batean etxebizitza salgai. Bi logela, egongela-jangela, sukalde zabala eta bainugela. 625 708 042

GARAJEAK.....
Alokairua

Garaje itxia alokagai Jausoro plazan. Prezioa 90€. Kotxe bakarrarentzat egokia. 699 812 566

Garaje itxi bat emango nuke alokairuan Elgoibarren, Leku-Ederren. 688 687 820

Garaje itxia hartuko nuke Bernardo Eze-narron, Pedro Migel Urruzunon edo Maala inguruan. 636 275 639

OSPAKIZUNAK

1934an jaiotako bazkaria antolatuta dugu. azaroaren 7rako. 14:30ean Sigma jatetxean elkartuko gara. Hobe alde zuretik izena ematea bertara deituta. 943 748 531.

1985ean jaiotako bazkaria, azaroaren 14an, Sigma jatetxean. 12:00etan plazan elkartuko gara eta bazkaria 15:30ean izango da. Usua tabernan eman behar da izena eta 40 euroko ordainketa egin, azaroaren 1etik 10era bitartean.

BESTELAKOAK.....

Trio Jane Carrera aniversario salgai. Oso egoera onean. Kolorea: Urdin iluna. Grupo O kapazua eta aukia, bakoitza bere zaku eta plastikoarekin salgai. 686 474 208

Duela bi aste, urriaren 2an, Aterpe taberna parean aurkitutako txirula bat ekarri digute. Galdu duena BARRENETIK pasa daiteke jasotzera.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Bizilagun batek bizilagun guztieena den elementuren batean kalteak eragin baditu, konponketa ordaintzea bere esku al dago, nahiz eta bere jabegoan mantentze-lan egokia egin?

Bizilagunak bere jabegoan mantentze-lan egokia egin arren, baliteke horrek kalteak eragitea elementu komunetan edo beste bizilagunengan. Beraz, kaltearen zergatia ezustekoa edo ezinbestean gertatu beharrekoa izan ez bada behintzat, bizilagunak konpondu beharko ditu bere elementuek gainontzekoetan eragindako kalteak.

Bizilagunak bere jabegoa zaintzeko dagokion ardura hartu badu ere, kalteen konponketa bere gain hartu behar izatearen arrazoia da bere jabegoaren elementuren batek kalte duela hirugarren bat, nahiz eta nahigabe izan.

Legea irakurrita, badirudi etxebizitzaren edo lokalaren jabea hirugarren bati eragindako kalteen erantzule izango dela, hutsegitea jabearenak soilik diren elementuen mantenuan izan bada. Baina ez da zehazki horrela. Izan ere, kasu hortan, ezin da jabea behartu bere jabegoa konpontzerakoan sortu diren kalteak ordaintzera. Beti ere, bere mantenu-lanak egin dituen behar besteko arreta jarri duela egiaztatzen badu.

Aholkua: Ezinbestekoa izango da kasu bakoitzeko egoera aztertzea, izan ere, kasuistika askotarikoa izan daiteke eta ez da erraza kasu guztiei erantzun bateratua ematea.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Elena**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Ondo pasa etxeko eta bereziki Mariaren partez.



Zorionak **Aiert eta Maia**, azaroaren 3an eta 7an 4 eta 2 urte betetzen dituzuelako. Muxu pila bat etxeko eta bereziki Ikerren eta Lierren partez.



Zorionak **Oinatz eta Elene**, 5 eta 2 urte betetzen dituzuelako! Aitatxo, amaitxo eta Iratiren partez, muxu haundi bana!

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

basquestay



www.basquestay.com

info@basquestay.com

606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu

6 BARIKAKUA

17:30 Umeentzako ikuskizuna: *Irri Herri Anitz!* Herriko Antzokian. Antolazailerak: Elgoibarko Izarra.

18:30 Erakusketa. Egur arte tailerreko ikasleen margolanak. Asteleheneretik larunbatera 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Azaroaren 15era arte.

21:30 *Searching for Sugar Man* dokumentala. Elgoibarko Sutegixa gaztetxean.

23:00 Kontzertua: Perlak. Kultur Etxeko sotoan. Antolazailerak: Sinüose.

7 BARIKAKUA

11:00-13:00 Elgoibarko Gure Esku Dago taldekoen bilera. *Eskura* proiektua. Dinamikaren finantzazioa, norabidea eta antolaketa. Herritarren iritziak jasoko dituzte. Kultur Etxeko sotoan.

10 MARTITZENA

12:00 Memoriaren Eguneko lore eskaintza. Giza Eskubideen parkeko Gernikako arbolapean.

12 EGUENA

18:30 *Beitxu, beixu!* lipdubaren koreografiaren entsegua. Olaizaga kiroldegian.

20:00 Hitzaldia. *Perretxiko jangarriak eta toxikoak bereizten*. Antolazailerak: Karakate Mikologia Elkarteak. Musika Eskolan.

13 BARIKAKUA

20:30 Antzerkia. *Caperucita Feroz*. Glu Glu produkzioak. Herriko Antzokian.

Nabarmenduak Mendarok sasoian

Mendaroko Kontsumo taldeak eta Udalak astebururako Mendarok sasoian egitasmoa antolatu dute jendeak kontsumo taldea ezagutzeko.

7, ZAPATUA

10:00-14:00 Bigarren eskuko eta truke azoka.

11:00 Umeentzako ekintzak

12:00 Heziketa bizikletaz.

14:00 Herri bazkaria, frontoian.

8, DOMEKA

10:00 Herri gosaria, Kilimon elkartean.

11:30 Garagartza ezagutzuz ibilaldia. Bazkarirako eta gosarirako izen-ematea Morroskilon eta Txirristakan.

natural • bertan • erduta • osasuntsu • politki • partekatu • aniztasunez

mendaro sasoian

azaroak 7 - 8 de noviembre

osteguna azaroak 5
Jakoba Errekondoren hitzaldia 29:00
Bere iburua auzestuzko du Trinidad bereizten

larunbata azaroak 7
2. ESKURAK eta TRUKE AZOKA 10:00-14:00
Bazkaria bizikletaz

igandea azaroak 8
Gosari herrikoa 10:00
Garagartza ezagutzuz ibilaldia 11:30

Preziosari kuzpua 19:00

Mendakari taldeak: Mendarok sasoian taldea, Mendakari Taldea, Gernika, Pirinorrena, Txirristakan sasoian taldea.



Jose Ignacio Muguruza Cendoya

“Agarretxiki”

2015eko azaroaren 2an hil zen, 74 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Zinea (Herriko Antzokian)

'Regresion'

6 Barixakua, 21:30
7 Zapatua, 19:00, 22:15 (VOS)
8 Domeka 19:00
9 Astelehena, 21:30

'El Padre'

26 Zapatua,
19:00 eta 22:15
27 Domeka, 19:00
28 Astelehena, 21:30

'El rey de la Habana'

22 Zapatua, 21:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00

6 Barixakua GARITAONANDIA
7 Zapatua ETXEBERRIA
8 Domeka ETXEBERRIA
9 Astelehena FERNANDEZ
10 Martitzena YUDEGO
11 Eguaztena ORUESAGASTI
12 Eguena BARRENETXEA
13 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 24:00

Astelehenetik igandera
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142
* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638
* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....943 741 626
Udalzaingoa.....943 741 394
Udalaren arreta bulegoa.....943 741 050
Udaleko idazkaritza.....943 743 700
Bake epaitegia.....943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....943 741 008
Hirigintza.....943 744 384
Mankomunitatea.....943 700 799
Debemen.....943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....943 744 414
Berdintasun saila943 741 050
Euskara saila.....943 744 366
Kultura saila.....943 742 158
Udal liburutegia.....943 743 525
Gazteria saila.....943 531 319
Gazte informazio gunea.....943 257 986

Ludoteka.....943 748 883
Gazteleku.....943 743 228
Enplegua-Merkataritza.....943 741 050
Emugi.....943 747 371
Kiroledegia.....943 744 415
Mintxeta.....943 747 356
Musika eskola.....943 742 145
Udal euskaltegia.....943 742 731
AEK euskaltegia.....607 601 423
KZgunea.....943 023 640
Jubilatuena biltokia.....943 740 526
San Lazaro egoitza.....943 740 296
Eguneko zentroa.....943 744 565
Kontsumo bulegoa.....943 743 088
Taxi geltokia.....943 740 898
Larrialdiak.....112

Jokalari anonimoak657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....629 141 874
Gurutze gorria.....943 743 864
Eusko tren.....902 543 210
Pesa.....902 101 210
Correos - Posta.....943 741 547

Mendaroko Udala.....943 033 282
Liburutegia.....943 033 291
Bake Epaitegia.....943 033 289
Eguneko Zentroa.....943 031 746
Mendaro Ikastola.....943 756 141
Hautzaindegia.....943 755 219
Musika Eskola.....943 244 275
Taxi607 57 57 28
Ospitalea.....943 032 800



Fernando Ayesta Albizu

2015eko azaroaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





☆fotoiosu☆



Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Ezin hobetuzko plana", esango luke gure amak; uda beteko egun bat mendi gain betetik abailtzen ikustea. "Arrats gorri, goiz argi", esango zuen gure osabak. Udazke-

nak egina dauka, baina, bidearen zati bat. Joan doa eguzkia, eta badatoz lainoak. Burdin-sareak ez dit urrutira ikusten uzten. Eta zenbat burdin-sare ote daude munduan, pertsoneri eta haien ikusmenari mugak jartzen. Siriar asko ikusi ditut burdin-sareak gainditzen. Hondartza batean, ur ertzean, hilik ere ikusi dut haur bat. Eta kazetari batek zangoztraba jarrita aitak besoetan daramala erori den beste haur bat ere bai. Errefuxiatu esaten diete, joankin, etorkin. Infernutik ihesi doazen, datozen, pertsonak ikusten ditut nik. Baina ni ez naiz nazioartean aditua, ezta aritua ere. Ez

naiz errefuxiatu, joankin edo etorkin (edo bai agian?). Baina badituz bi begi ikusteko, eta jende dantzaren erdian Europa eta Estatu Batuak ikusten ditut, orekari nola eutsi asmatu ezinik. Siriako gerran inplikaturik dauden herrialdeei armak saltzearen ordainsaria. Elkartasun oihuak han hemen; eta elkartasun horrek "geurea" kolokan jar dezakeelako beldurra airean.

Eta Pablo Irabururen *Walls, Harresiak* dokumentala etorri zait gogora. Zenbat harresi ote daude munduan. Zenbat gorraipatu eta fotografiatu ote den Berlingoa bota izana, eta zenbat eraiki ote diren gerora han-hemen. Nork erabakitzen ditu mugak, nork erabakitzen du nor den hemengoa eta nor hangoa. Diruak erabakitzen ote du. Ahaztu bide zaigu, harresiaren "beste aldean" ere, bizitza ez ezik, ametsak ere badaudela.

"Zenbat burdin-sare ote daude munduan mugak jartzen"

Zuen oroimenak indartzeko gaitu



VI. URTEURRENA
JUANA BARRUTIA GABILONDO
2009ko apirilaren 16an hil zen



VIII. URTEURRENA
RAMON CANALES TRUEBA
2007ko maiatzaren 2an hil zen



IV. URTEURRENA
JULIA BARRUTIA GABILONDO
2011ko azaroaren 5ean hil zen



I. URTEURRENA

Maria Eloisa Lopez de Abetxuko Madarieta

2014ko azaroak 8an hil zen, 84 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroak 7, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.

***Isiltasuna izan dira
zure lana eta bizitza
beti izango zara
gure oroimenean eta bihotzean.***



I. URTEURRENA

Antonio Iriondo Ulacia

"Kapain"

2014ko azaroaren 4an hil zen, 73 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, azaroak 8, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Garagartzako eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.

***Urtebete da joan zinela,
baina zure oroimena
beti izango da gure bihotzean.***



XVII. eta XXI. mendeen artean Euskal Herrian bizi diren ama baten eta bere zazpi alaba ijitoen istorioa.

EDERLEZI PASTORALA

Elgoibarren pastoral bat ikusteko estreinako aukera!

Herriko Antzokia
Azaroak 14, larunbata, 17:30

Sarreraren aurre-salmenta Elgoibarko Izarran (943 741 626)
 Prezioa: 5€

Gauean, Gaztetxean, 23:00



Xiberoots

Nahia x Matthys

